


Baso-ziurtapena

I- Zer da Baso-ziurtapena?

Jadanik azaldu dugu zer den Baso-kudeaketa Jasangarria, hau da, basoak hiru alderdiak – ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala- kontuan hartuz kudeatzen dituen eta haien onura guztiak denboran zehar iraunarazi nahi dituen.

Badira basoetan egiten den kudeaketa zer-nolako den ikuskatzeaz arduratzen diren erakundeak. Guztia modu egokian egiten dela eta jasangarritasun-irizpideak betetzen direla egiaztatzen badute, ingurumen-zigilu bat ematen dute. Modu jasangarrian kudeatutako basoetatik eskuratzen diren produktuek –zura, sutarako egurra, onddoak, fruituak...- eta haien deribatuek –papera, altzariak, etab.- zigilu horiek eraman ahal izango dituzte, kontsumitzailea bereizi ahal izan ditzan. Prozesu horri guztiari Baso-ziurtapena deitzen zaio.



Hona hemen Baso-ziurtapenaren abantaila batzuk:

- Baso-masa eta -ekosistemen kontserbazioa eta hobekuntza sustatzen ditu.
- Baso-jabeari bere basoak ondo kudeatuta daudela erakustea ahalbidetzen du.
- Zuraren irudia nabarmentzen du, lehengai berriztagarri eta ekologiko gisa.
- Enpleguaren sorrera sustatzen du; landa-gizarteen eta naturarekin lotutako aisialdi forma berrien garapena ahalbidetzen du.
- Kontsumitzaileen kontzientzia sustatzen du, erosten dituzten produktuen jatorriari dagokionez.



Baso-kudeaketa jasangarria
Baso-ziurtapena

II- Nola jakin daiteke zein diren baso-produktu ziurtatuak?

Honako hauek dira gaur egun Espainian erabiltzen diren bi sistemak eta haien identifikaziorako zigiluak:



PEFC :
Programme for the Endorsement of Forest Certification Schemes

PEFC™



FSC :
Forest Stewardship Council

Aurrerantzean arretaz begiratzen baduzu, ziur egon zigilu hauek basotik eratorritako produktuetan aurkituko dituzula: paperezko poltsetan, kartazaletan, kartoizko kutxetan, altzarietan, jostailuetan, etab.

